

## Euskal Herriko langabezia-tasa %9,44koa da. Biztanleria aktiboak eta langabetu kopuruak gora egin dute.

> 2018ko laugarren hiruileko datuen arabera, Euskal Herriko langabezia tasa %9,44koa da (INE), aurreko hiruilekoan baino 0,16 puntu altuagoa. EUSTATen datuen arabera, berriz, Euskal Herrian langabezia tasa 0,51 puntu handitu da eta %9,87an kokatzen da. Herrialde mailan, ordea, langabezia-tasaren joera ez da homogenea izan: Bizkaian (+0,59; INE) eta Nafarroan (+0,34; INE) gora egin duen bitartean, gainerako herrialdeen langabezia-tasa jeitsi egin da.

> INEko datuen arabera, azken hiruilekoan langabezia tasaren jaitsi egin da Araban (-0,60; INE) eta Gipuzkoan (-0,19; INE). EUSTATen arabera, berriz, Arabak (+1,0; EUSTAT) eta Gipuzkoak (+0,90; EUSTAT) ere jasan dute langabezia-tasaren igoera.

> Aintzat hartu behar da langabetuen zein biztanleria aktiboaren kopuru gordinak gora egin duela Euskal Herrian. Bilakaera hau urteko azken hiruilekoak adierazi ohi duen joera da, ekonomiaren estazionalitateari erantzuten baitio. Horiek horrela, Euskal Herriko langabetu kopurua eta biztanleria aktiboa 141.800 eta 1.502.000 dira, hurrenez hurren.

> Gauzak horrela, Bizkaiak jarraitzen du izaten Euskal Herriko lurraldeen arteko langabezia-tasa handiena (%11,47). Hala berresten du EUSTATEk ere (%11,30). Ostera, Ipar Euskal Herriak, Gipuzkoak eta Arabak dute langabezia tasa apalena: %7 inguru.

> EB-28an ere langabezia-tasak gora egin du (+0,20), Euskal Herriko igoeraren maila berean. Hala, bi lurraldeen arteko aldeak ez da gutxitu eta Euskal Herriko langabezia-tasak Europako Batasuneko batez bestekoa baino 2,7 puntu handiagoa izaten jarraitzen du (INE).

Langabezia-tasa eta langabe kopurua. Euskal Herria eta bere lurraldeak, 2013/2018-IV epea.

		LANGABEZIA-TASA							LANGABETU GORDINAK				
		2013	2014	2015	2016	2017	2018	2017-IV	2018-III	2018-IV	2017-IV	2018-III	2018-IV
EAE	INE	16,57	16,33	14,77	12,59	11,31	9,97	10,57	9,42	<b>9,58</b>	108.300	95.800	<b>98.700</b>
	EUSTAT	15,10	16,10	15,30	13,40	11,30	10,28	11,10	9,50	<b>10,20</b>	114.800	98.700	<b>106.300</b>
Araba	INE	17,51	17,20	15,01	11,99	11,27	9,11	9,04	7,99	<b>7,39</b>	14.100	12.500	<b>11.600</b>
	EUSTAT	15,10	17,10	16,00	13,60	11,70	10,83	10,80	9,80	<b>10,80</b>	16.700	15.700	<b>17.300</b>
Bizkaia	INE	17,76	17,32	15,99	14,21	12,70	11,65	12,34	10,88	<b>11,47</b>	66.300	57.800	<b>62.000</b>
	EUSTAT	16,70	17,20	16,70	14,90	12,70	11,60	12,90	10,80	<b>11,30</b>	69.800	58.600	<b>61.400</b>
Gipuzkoa	INE	14,12	14,26	12,67	10,26	9,02	7,70	8,43	7,75	<b>7,56</b>	27.900	25.600	<b>25.000</b>
	EUSTAT	12,50	13,90	13,00	11,00	8,90	7,90	8,40	7,20	<b>8,10</b>	28.300	24.400	<b>27.500</b>
Nafarroa Garaia	INE	17,93	15,71	13,83	12,49	10,24	10,03	9,63	9,65	<b>9,99</b>	29.900	30.300	<b>31.600</b>
Ipar EH (*)	INSEE	8,94	8,82	8,86	8,50	8,03	7,64	7,66	7,56	<b>7,39</b>	12.000	10.200	<b>11.100</b>
Lapurdi	INSEE	9,78	9,64	9,63	9,21	8,79	8,33	-	-	-	-	-	-
Nafarroa Beherea	INSEE	4,77	4,99	5,00	4,77	4,54	4,32	-	-	-	-	-	-
Zuberoa	INSEE	5,56	5,50	5,22	5,13	4,78	4,53	-	-	-	-	-	-
EUSKAL HERRIA (*)	INE	16,16	15,51	14,02	12,18	10,77	9,75	10,07	9,29	<b>9,44</b>	150.200	136.300	<b>141.800</b>
	EUSTAT	15,14	15,36	14,44	12,77	10,79	9,97	10,45	9,36	<b>9,87</b>	156.700	139.200	<b>149.400</b>

(\*) Ipar Euskal Herrian 2015 urtetik aurrera biztanleria aktiboaren estimazioa aintzat hartzen du. Urteroko berrikuspena.

Iturria: EUSTAT, INE eta INSEE. GAINDEGIA.

### Harremanetarako:

Gaindegia prentsa bulegoa (Aitor)

[komunikazioa@gaindegia.eus](mailto:komunikazioa@gaindegia.eus)

Tel: (0034) 943 304 365

Martin Ugalde Kultur Parkea

Gudarien etorbidea 8, 20140 Andoain

## Langabezia-tasa. Euskal Herria eta Europa, 2013/2018-IV epea.

	2013	2014	2015	2016	2017	2018 (p)	2017-IV	2018-III	2018-IV (p)
Grezia	27,5	26,5	24,9	23,6	21,5	19,2	21,2	18,3	18,2
Espainia	26,1	24,5	22,1	19,6	17,2	15,3	16,6	14,6	14,5
Katalunia	23,1	20,3	18,6	15,7	13,4	11,5	12,6	10,6	11,8
Italia	12,1	12,7	11,9	11,7	11,2	10,7	11,2	9,4	11,0
<b>EUSKAL HERRIA (EUSTAT)</b>	<b>15,1</b>	<b>15,4</b>	<b>14,4</b>	<b>12,8</b>	<b>10,8</b>	<b>10,0</b>	<b>10,4</b>	<b>9,4</b>	<b>9,9</b>
<b>EUSKAL HERRIA (INE)</b>	<b>16,2</b>	<b>15,5</b>	<b>14,0</b>	<b>12,2</b>	<b>10,8</b>	<b>9,8</b>	<b>10,1</b>	<b>9,3</b>	<b>9,4</b>
Frantzia	10,3	10,3	10,4	10,1	9,4	9,0	9,2	8,8	9,0
Zipre	15,9	16,1	15,0	13,0	11,1	8,7	10,2	7,9	8,5
Kroazia	17,4	17,2	16,1	13,4	11,1	8,6	10,5	7,3	8,3
Letonia	11,9	10,8	9,9	9,6	8,7	7,4	8,1	7,0	6,8
Portugal	16,4	14,1	12,6	11,2	9,0	7,0	8,2	6,8	6,7
EB-28	10,9	10,2	9,4	8,6	7,6	6,9	7,3	6,5	6,7
Finlandia	8,2	8,7	9,4	8,8	8,6	7,4	7,6	6,5	6,3
Eslovakia	14,2	13,2	11,5	9,7	8,1	6,6	7,7	6,4	6,2
Lituania	11,8	10,7	9,1	7,9	7,1	6,3	6,7	5,9	6,2
Belgika	8,4	8,5	8,5	7,8	7,1	5,9	6,4	5,9	5,5
Suedia	8,0	7,9	7,4	6,9	6,7	6,2	6,0	6,1	5,5
Bulgaria	13,0	11,4	9,2	7,6	6,2	5,4	5,6	5,0	5,3
Luxenburgo	5,9	6,0	6,5	6,3	5,6	5,2	5,6	5,2	5,2
Estonia	8,6	7,4	6,2	6,8	5,8	5,5	5,3	5,3	5,1
Eslovenia	10,1	9,7	9,0	8,0	6,6	5,3	5,8	5,0	5,1
Irlanda	13,8	11,9	10,0	8,4	6,7	5,7	6,1	6,0	5,1
Danimarka	7,0	6,6	6,2	6,2	5,7	4,9	5,1	4,9	4,7
Austria	5,4	5,6	5,7	6,0	5,5	4,9	5,3	4,9	4,7
Erresuma Batua	7,5	6,1	5,3	4,8	4,4	4,1	4,2	4,2	4,0
Errumania	7,1	6,8	6,8	5,9	4,9	4,1	4,7	3,9	3,9
Polonia	10,3	9,0	7,5	6,2	4,9	3,9	4,5	3,8	3,9
Malta	6,4	5,8	5,4	4,7	4,6	3,9	4,4	3,7	3,7
Eskozia	7,2	5,9	5,7	5,1	4,1	4,0	4,5	3,8	3,6
Hungaria	10,2	7,7	6,8	5,1	4,2	3,7	3,8	3,8	3,6
Herbehereak	7,3	7,4	6,9	6,0	4,9	3,4	4,3	3,6	3,5
Flandria	5,0	5,1	5,2	4,8	4,4	-	3,6	3,4	-
Alemania	5,2	5,0	4,6	4,1	3,8	3,4	3,5	3,3	3,2
Txekiar Errep.	7,0	6,1	5,1	4,0	2,9	2,2	2,4	2,3	2,0
Turkia	9,0	9,9	10,3	10,9	10,9	-	10,3	11,1	-
Norvegia	3,8	3,6	4,5	4,8	4,2	3,9	3,9	4,0	3,9
AEB	7,4	6,2	5,3	4,9	4,4	3,9	3,9	3,9	3,5
Islandia	5,4	5,0	4,0	3,0	2,8	2,9	2,8	2,2	2,9
Japonia	4,0	3,6	3,4	3,1	2,8	2,5	2,6	2,5	2,4

Oharrak:

(p) Behin-behineko datuak.

Estazionalizatutako datuak.

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, EUROSTAT, Erresuma Batuko Estatistika Bulego Nazionala eta Belgikako Gobernu Federala. GAINDEGIA.